

43. Ingurumen Buletina



1. Goienarren bazkide egiteko kanpaina ELAn
2. ELAk Bizkaiarako Hondakinen Kudeaketarako Plan berri bat exijitzen dio Foru Aldundiari
3. Klima aldaketa eragiten duten CO2 emisioak gora eta gora etengabe
4. Beste Klimaren Goibilera bat, ¿ezetx asmatu zein izan den emaitza?
5. “Las alternativas al sistema y el dilema de Galeano”



1. Goienarren bazkide egiteko kanpaina ELAn

Sistema kapitalistaren alternatibak errealitate bihurtzeko ELAn egiten ari garen bidea ez da berria. Urte batzuk daramatzagu kontsumo taldeekin, Fiarerekin banka etikoan, edo beste hainbat alternatiba gizarteratzen Alternatiben Herria bezalako ekimenekin Baionan, Donostian, Bilbon eta hurrengo Iruñean 2018ko ekainaren 2an. Ekainean izan genuen ELAren 14. Kongresuan berebiziko garrantzia izan zuten alternatibek, ebazpen bat onartu baikenuen non ELAk alternatiba sozial eta ekologikoetan parte hartzeko konpromisoa hartzen zuen. Ebazpen honetan Goienarren aipamen zehatza egiten da. ELAk

ELA eta Goienarren arteko harremana ez da oraingoa. 2014an bildu ginen elkarrekin lehen aldiz, non beraien helburuak zeintzuk ziren ikusi eta enpresa elektriko handien aurrean benetako alternatiba bat zela konturatu ginen. Momentu horretan erabaki genuen ELA Goienerrera pasa behar zela. Aldaketa honek ez zuen faktura aldaketa bat bakarrik suposatzen, biontzat aurrerapauso bat suposatzen zuen. ELArentzat sistema kapitalistaren aurrean bilatzen ari ginen alternatibetan aktiboki parte hartzea suposatu zuen. Goienerrantz bultzada bat izan zen, beraien burua ezagutzera ematen eta bazkide berriak egiteko zuten beharra zuten momentu batean. Aldaketa 2014an egin zen.

Kapitalismo neoliberal basatia irudikatzen duen sektore energetikoa adibide oso garbia da eta Goienar berari aurre egiteko alternatiba erreala eta tresna paregabea. Sobera ezagutzen dugu oligopolio energetikoaren funtzionamendua: kontsumoaz gain hainbat kontzeptu ordainarazten dizkigute, fakturak guztiz ulergaitzak dira, enpresa handien artean prezioak adosten dituzte, gobernuak nahi duten bezala egin eta desegiten uzten die, ate birakariak, pobrezia energetikoa, gupidarik gabeko argi mozketak, ingurumen kalte handiak, energia berriztagarrien garapena oztopatzen dute, ... Kanpaina hau burutzeko arrazoiak zerrenda bukaerarik gabea da.



Momentu honetan Goienar da eredu energetiko injustu honi aurre egiteko daukagun tresna eraginkorrena. Fakturaren aldaketak komertzializatzaile aldaketa baino askoz gehiago suposatzen du. Gehiengoaren sufrimenduan oinarrituz gutxi batzuentzat irabaziak izatearen logika kapitalistatik irteten gara. Goienarren parte izanda helburu sozial eta solidarioekin loturiko proiektuak babesten ditugu. Energia berriztagarriak bultzatuko ditugu. Eta kooperatibaren erabaketan parte hartuz kontsumitzaileok dugun boterea berreskuratzen dugu.

2. ELAk Bizkairako Hondakinen Kudeaketarako Plan berri bat exijitzen du

Bizkaiko Zero Zabor plataformak salatu duen bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak II. Bizkaiko Hondakinen Kudeaketarako Plana 2005-2016 (PIGRUB) plangintzaren errebisio bat egitea erabaki du, Plan berri bat egiteari uko eginda. Plataformak salatu du beharrezkoa dela Planak orientazio berri bat izatea eta ez errebisio soil bat. PIGRUB berri bat beharrezkoa da hondakinen sorkuntza, bilketa selektibo eta birziklapen tasen joera negatiboari buelta emateko.

ELAk Zero Zaborren salaketa babesten du, non esaten duen Bizkaiak ez dituela Europak ezarritako hondakinen inguruko derrigorrez bete beharreko helbururik beteko. Beharrezkotzat jotzen dugu beraz Zero Zabor helbururantz zuzenduriko PIGRUB berri bat, eta ez orain arte bezain gaizki jarraitzeko berrikuspen soila. Datuek arrazoia ematen digute:

- 2016ko birziklapen tasa %43,7 da Aldundiaren arabera, baina datu hau zalantzan jartzekoa da. Gogoratu behar da 2014an %68ko birziklapen tasa eman zela “akats” baten erruz, ondoren zuzenduta egungo %43,7an utzi dute. Baina zalantzak dira datu honetan eraikuntzako hondakinak hiri hondakin birziklatu bezala kontatzen baitituzte. Zalantza sortzen du baita bukaerako tratamenduak nola kontatzen diren. Tratamendutako kantitatea birziklatu bezala kontatzen da, kontuan izan gabe tratamendu horietan ez dela guztia birziklatzen eta birziklatzen ez den hori Zabalgargira edo zabortegira joaten dela. Tranpa hauek kontuan hartuta, birziklapen tasa ez zen %40ra iritsiko, 2020rako hiri hondakinen %50 birziklatzeko europar helburutik urrun geratuz.
- Prebentzioa ezinbestekoa da eta Aldundiak ez du prebentzio neurririk planteatzen hondakinen sorrera gutxitzeko. 2001 urteko egoera berean gaude.
- Hondakin organikoen bilketa selektiboaren tasa %1,1 da. Organikoak hondakin guztien %40 suposatzen du. Beharrezkoa da organikoen bilketa tasan areagotzea eta konpostajea izatea organikoarentzat tratamendu nagusia. Gaur egun Bizkaiko konpostajerako azpiegiturak oso eskasak dira eta ez dute teknologia egokirik. Planak ez du tratamendurako azpiegituren inguruko berrikuspenik egiten.
- Berrikuspen honekin plastikoen arazoa betikotu egingo da, ez baitu ezer berririk proposatzen.
- Zabortegira tratatu gabe doazen hondakinak %20 dira. Zabortegia azken aukera izan behar da eta Bizkaian ez da horrela. Artigasko zabortegia berritu da urtean 90.000 tona hondakin jasotzeko. Hondakinez gain, Zabalgargiko erraustegitik datozen errauts toxikoak eta eskoriak ere bertara botatzen dira. Eta hauek, arriskutsuenak izanik, ez dira kontatu ere egiten. Eta oraindik larriagoa dena, material birziklatu gisa kontatzen dira eta ez dira zabortegiko %20an sartu ere egiten.
- Errausketak atal berezi bat behar du gai honetan. PIGRUBaren oinarria Zabalgargi da eta hondakinen beste tratamendu guztiak baldintzatzen ditu. Erraustegiak “janaria” behar du eta horregatik Plan honek Zabalgargi nahikoa hondakin jasoko dituela bermatzen du. Apustu honen ondorio dira prebentzioa, bilketa selektiboa eta birziklapena bultzatzeko baliabide eta neurri eza. Arrazoi berdinagatik ez da hondakin mota bakoitzarentzat tratamendu egoki eta eraginkorretan inbertitzen.



Bizkaiko Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari politikoak Zabalgarbin

ELA inongo Hondakinen Kudeaketa Planetan erraustegia oinarri izatearen aurka dago. Gure apustua beti izan da Zero Zabor helburua, eta helburu hau ahalik eta modu iraunkorrean errealitate bihurtzeko neurriak hartu eta beharrezkoak diren inbertsioak egitea.

3. Klima aldaketa eragiten duten CO2 emisioak gora eta gora etengabe


Klima aldaketaz hitz egiteak berotegi efektuko gasen (BEG) kontzentrazioaz hitz egitea dakar. Munduko Meteorologia Erakundeak argitaratu berri du BEGen inguruan egin duen azken ikerketa. Atera duten ondorioa larria da oso. 2016 urtea izan omen da datuak erregistratzen hasi zirenetik izandako urterik beroena. Eta hau gizakion jarduerak eragindako BEG isurketen ondorio zuzena da. Hau ez da ezer berria zoritxarrez, baina komeni da argitaratutako datuei begirada bat ematea.

BEG isurketei buruz hitz egitean, batez ere CO₂az aritzen gara, berau baita klima aldaketa eragiten duten gasetatik kopuruz pisu gehien duena, BEGen %65a suposatzen du. Baina are garrantzi handiagoa du klima aldaketan, %83a eragin baitu azken 5 urteetan. Adierazle garrantzitsua da beraz.

Industrializazio garaiaren aurretik, 1750 urtean, atmosferako CO₂ kontzentrazioa 278 ppm (partikula milioiko) zen. 2016an CO₂ erregistroek maximo historiko berriak markatu dituzte 403,3 ppm kontzentrazioarekin. CO₂ mailak %145 hazi da, batez ere erregai fosilen erabileragatik eta deforestazioaren eraginez. 2016ko erregistro historikoa esanguratsua da bere baitan, baina are esanguratsuagoa azken 10 urteetako hazkunde erritmoak gora egin duela erakusten baitigu. Azken hamarkadan urteko 2,21 ppm hazkundera izan du CO₂ kontzentrazioak, baina 2015-2016 epean hazkunde hori 3,3 ppmkoa izan da.

Eta zer ari gara egiten egoerari buelta emateko? Ezer gutxi. Industrializazio aurreko garaitik 1,1°C igo da planetaren tenperatura. Klima aldaketari aurre egiteko mugimenduek badute helburu konkretu bat: CO₂ kontzentrazioa 350 ppm azpitik mantentzea planetaren beroketa 1,5°C baino handiagoa ez izateko. Herrialde askok ez dute helburu hau konpartitzen

eta beraien politikak azaltzerako orduan 2°Cko beroketaren muga aipatzen dute, horrela sinatu zen Parisko Akordioan. Baina helburua bata zein bestea izanda ere, oraindik oso urrun gaude. Ondorengo grafikoan ikus dezakegu mundu mailako emisioek zein beroketa eragin ditzaketen hurrengo urteetan:



2017ko prospekzioa. Iturria: Climate Action Tracker

Egingo diren BEG emisioen murrizketen arabera, 2100 urtean, ondorengo egoeretako bat izango da:

- Egungo joerari jarraituz, hau da emisioak eta CO₂ kontzentrazioak urtero oraingo erritmoan gora egiten badute, planetaren beroketa 4,1 eta 4,8 gradu bitartekoa izango da.
- 2017an aurrera eramaten ari diren politikekin beroketa 3,1 eta 3,7 artekoa izango da.
- Herrialde guztiek beraien emisio murrizketa promesak beteko balituzte, planetaren tenperatura 2,6 eta 3,2 gradu bitartean igoko litzateke (EEBB kanpo utzita, Trumpek esan baitu ez dituela beteko).
- Grafikoak argi erakusten du emisioen murrizketa zeretik gertu egon beharko litzatekeela planetaren tenperatura 1,5 eta 1,7 gradu bitartekoa izateko.

Eta zer ari gara egiten egoerari buelta emateko? Hartutako konpromisoen atalean, egindako promesak ez dira nahikoa, eta herrialdeak aurrera eramaten ari diren murrizketa politikak are eskasagoak dira. Etorkizunean edukiko dugun egoera grafikoan argi ikusten da. Beti diogu berandu gabiltzala klima aldaketari buelta emateko, baina gure esku dago sufrituko ditugun eraginaren maila gutxitzea. Horretarako ere borondatea falta da ordea.

4. Beste Klimaren Goibilera bat, ¿ezetz asmatu zein izan den emaitza?

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako azterlan baten arabera, euskal gizartearen %90ak uste du klima aldaketa gertatzen ari dela dagoeneko, eta %80 baino gehiago kezkatuta dago. Beste afera batzuetan bezala, gizartea gobernuen aurretik doa.

Urtero garai honetan egiten duten legez, Nazio Batuen Erakundeak Klima Aldaketaren aurkako Goibilera burutu du. Gai hau jarraitzen duzuenok badakizue urtero Goibilera honen bukaeran izandako emaitzak edo emaitza eza baloratzen dugula. Eta aurten ere ez gara gutxiago izango.

Parisko COP21 geroztik, bi urte daramagu esaten herrialde bakoitzak hartu behar dituen neurrietan haratago joan behar duela Parisko Akordioan hartutako konpromisoak bete ahal izateko. Ez da nahikoa etorkizunean neurri gehiago hartzearen promesa egitea, gehiago zehaztu gabe. Herrialde bakoitzak bere berotegi efektuko gasen (BEG) emisioak murrizteko hartuko dituen neurriak plazaratzeko momentua da, eta baita baliabide gutxiko herrialdeei klima aldaketaren aurkako politikak aurrera eramaten diruz laguntzeko sortu zen Fondo Berdean adostutako dirua jartzeko garaia ere. Hauek biak ziren Bonnen ospatu den COP23aren helburu nagusiak.

Baina aurten ere aurreko Goibileretan izandako emaitza izan dugu. 2017rako zeuden helburuak betetzeko epeak luzatu dira. Erabaki garrantzitsuenak hurrengo urteko Katowiceko (Polonia) COP24rako utzi dira. Parisen adostutakoa 2021ean sartzen da indarrean baina 2018an zehaztu behar da etorkizuneko araudia. Parisko Akordioa oraindik bete ez denean, jada esaten ari dira ez dela nahikoa izango eta Talanoako Elkarrizketa programa sortu dute ekintza klimatiko eraginkorragoa prestatzeko.

COP23an adostutako azken dokumentuaren arabera, Goibileran albiste onez betea egon da eta elkarrizketa programa honek COP24an herrialde bakoitzak bere plan nazionalak modu anbiziotsuagoan berrikustera eramango ditu, horrela mundua 2020 aurreko helburuak betetzera bideratuz, eta baita Parisko Akordioan zehaztutako epe luzeko helburuak betetzera ere. Beraz, berriro ere aurrerantz ihesian. Edukirik gabeko akordioa eta etorkizunerako erreferentzia data berriak.

Argi dago helburu guzti hauek aurrera eramateko finantziarioa behar dela eta hau urteroko borroka izaten da. 2009an adostutako Fondo Berdeak, herrialde guztien artean jarritako 100.000 milioi dolar jaso behar zituen urtero. Urte guzti hauetan ez da helburu hau bete, eta COP23a ere ez da ezberdina izan.

Estatu Batuak bere protagonismoa ere izan du Goibileran honetan. Trumpek Parisko Akordiotik irtengo duela eta ez dituela sinatutako murrizketa eta finantziario konpromisorik beteko iragarri du. Emisio gehien dituen herrialdeetako bat izanda eta Fondo Berdean diru gehien jarri behar duenetako bat izanda, albiste oso txarra izan da. Hala ere, Estatu Batuak osatzen duten estatuetako batzuk Trumpek iragarritakoari kasurik egingo ez diotela esan dute eta emisio murrizketa politikekin aurrera egingo dutela baieztatu dute. Baina EEBBk konpromisoak beteta ere egoera oso larria da.

Goibileran honetako beste iragarpen esanguratsu bat ikatzaren erabilera gutxitzeko Aliantza Globalaren sorrera izan da. Kanada, Erresuma Batua, Finlandia edo Frantzia bezalako herrialdeek bultzatutako Aliantza honek hazkunde garbia bultzatu eta energia iturri bezala ikatza erabiltzea bertan behera utzi nahi du. Helburua 2030erako ikatzik ez erabiltzea da. Beharrezko pausua da hau klima aldaketaren aurkako borrokan, ikatza baita energia iturri guztietatik BEG gehien isurtzen duena eta elektrizitate ekoizpenean oso erabilia da. Mundu mailan ekoizten den elektrizitatearen %40 ikatzetik dator. Baina Aliantza hau gabezia handiekin jaio da, Alemania edo Espainia bezalako herrialdeek ez baitute bat egin. Ezta Poloniak ere, ikatz ekoizle handia izanik.

Azpimarratzekoa da Polonia izango dela hurrengo COP24a hartuko duen herrialdea. Ez da oso berri ona ikatzaren aurkako Aliantzarentzat, eta orokorrean klima aldaketaren aurkako mugimenduarentzat ere ez. Izan ere, Varsovia egin zen COP19an izugarriak izan ziren ikatzaren aurkako neurririk ez hartzeko presioak. Beraien lidergoa ez zen bideratu negoziazioak

ahalik eta klima aldaketaren aurkako emaitza onenak izateko, alderantziz, herrialde anfitruiak bere interesak defendatu zituen, batez ere ikatz ekoizleenak.

Beraz, beste urte bat joan zaigu ezer gutxi aurreratuta eta 2018tik ere ez dugu emaitza positiborik espero.

5. “Las alternativas al sistema y el dilema de Galeano”, alternatibei buruzko artikulua

Sistema kapitalistaren aurrean alternatibak bultzatzea ez da soilik ELAren erronka, badago alternatiba hauen aldeko apustua egiten duen “zoro” gehiago ere. [Hemen](#) duzue alternatibei buruzko artikulua interesgarri bat.